ZER DA ETA ZERTARAKO BALIO DU GIDALIBURU HONEK

Eskuartean duzun gidaliburua irakasleei zuzenduta dago eta Ivan Benitez kazetariak Kongoko Errepublika Demokratikoko (aurrerantzean KED) Rubayako mehatzetan hartutako argazkiek osatzen duten erakusketa ikusi eta aztertzeko modu bat proposatzen du.

Iván Benítezen "Zure mugikorrak ezkutatzen duena" erakusketa ALBOAN GKEren "Gatazkarik Gabeko Teknologia" kanpainaren barruan kokatzen da. ALBOAN GKEren kanpaina honen asmoa mugikorrek, tabletek eta ordenagailuek KEDko ekialdeko gerrarekin duten lotura ezagutzera ematea da. Hain zuzen, gidaliburu honen helburua da Ivan Benitezen argazkiak abiapuntutzat hartuz, Kongoko Ekialdeko egoerak gure bizimoduarekin dituen harremanak ikasleekin hausnartzen laguntzea. Modu horretan, teknologiaren eta indarkeriaren arteko loturak haustea gure esku ere dagoela agerian utzi nahi dugu, eta hori egiteko proposamenak luzatu.

Argazkiak multzoka sailkatu ditugu, erakusteraren ordena jarraituz, eta argazki multzo bakoitzari gai bat dagokio. Argazki multzo bakoitza lantzeko honako bi pauso hauek proposatzen dizkizuegu:

1. Multzo bakoitza osatzen duten argazkiak begiratu. Ikusten ari zarena aztertu eta sortarazten dizkizun sentsazioak hausnartuz hasi. Prozesu honetan laguntzeko, sail edo gai bakoitzaren hasieran galdera batzuk proposatzen ditugu.

2. Hausnarketa pertsonala eta gaiari dagokion informazioaren irakurketa partekatu, sentitzen eta ikusten ari garenaren azpian dagoena azaleratuz eta, ahal den heinean, gurekin duen zerikusia aztertuz.

Irakasleak duen informazio eta baliabideekin beste sailkapen edota ibilbide desberdin bat proposatu dezake, adibidez ikasleek galderak beste modu batetan bideratuko balituzte eta beste argazki batzuekin lotu ditugun gaiak atera. Irakasleak erabakiko du zenbat informazio eman eta ekintza nola zuzendu, kurtsoaren adinaren eta ezaugarrien arabera.

https://exposiciontlc.tecnologialibredeconflicto.org/eu/exposicion/ web orrialdeak, QR kodeen bidez erakusketan zehar kontsultatu ahal izango dena, ikusleen esku jarriko ditu gai bakoitzarekin zerikusia duten audio-gidak, bideoak eta infografiak. Gida honetan eduki horiek zehazten baditugu ere, web orria ikuskatu eta QR kodeak jarraitzea gomendatzen dugu, audiogidak entzun ahal izateko eta orohar, multimedia materiala zuzenean eskuratu ahal izateko.

-en proiektu bat

ALBOAN
Jesuitek bultzatutako Fundazioa

Lortzeagatik

TECNOLOGÍA LIBRE DE CONFLICTO
www.tecnologialibredeconflicto.org

Laguntzailea:

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

1. LEKUALDAKETA FORZATUA MUNDUAN
(1- 2 ARGAZKIAK)

Argazkietan ikusten ari zarena lekualdatutako pertsonen kanpamenduak dira. Zergatik gerta daiteke jendeak bere etxeetatik ihes egin eta horrelako kanpamenduak osatzea? Horrelako kanpamenduetan jendea bizi egiten da, hilabeteak, urteak… Ume asko bertan jaio eta hazi dira eta ez dute beste bizilekurik ezagutu. Nola uste duzu izan daitekela horrelako leku batetan bizitzea?

Indarrez lekualdatutako pertsonez ari garela, badira ezagutu beharreko hainbat kontzeptu:



Errefuxiatu bat da pertsona bat zeinak bere etxea edo bizilekua utzi behar duen gerragatik edo arraza, erlijio, nazionalitate, iritzi politiko, talde sozial bateko kide izan edo duen orientazio-sexualagatik jasotako pertsekuzioengatik. Ihes egitean, atzean uzten du duen guztia eta bere herrialdeko mugak zeharkatzen ditu, orokorrean mugakideak diren beste herrialdetara joanez. 1951ko Errefuxiatuen Estatutuen Ginebrako Konbentzioaren babespean daude errefuxiatuak; honek, oinarrizko eskubide batzuk bermatzen dizkie ez-bueltatzearen printzipioari jarraiki: errefuxiatu estatusa dutenak ezin dira haien herrialdetara itzuli.



1. LEKUALDAKETA FORZATUA MUNDUAN
(1- 2 ARGAZKIAK)

Lekualdatutako pertsona da, errefuxiatuen arrazoi antzekoengatik, bere etxebizitza utzi egiten duena baina nazioartean aitortutako muga bat igaro gabe, hau da, bere herrialdeko muga igaro gabe. Gaur egun nazioarteko komunitateak ez du legezko obligaziorik lekualdatutako pertsona horiek babesteko. Hauek euren Estatuko gobernuaren menpe daude, herrialdearen mugen barruan daudelako. Gehienetan, babesgabetasuna dute ezaugarri.

Errefuxiatuak eta lekualdatuak ere ez dira migratzaile ekonomikoak, zeinak euren etxebizitzak atzean utzi zituzten egoera ekonomikoa hobetzeko helburekin, normalean, haiek nahi izan dutelako. Ekainaren 20 da Errefuxiatuen Eguna.

ACNURen arabera, 2016 urte bukaeran bataz-beste 20 pertsona minutu bakoitzeko bere etxebizitzak uztera behartua izan dira eta beste babes-leku baten bila hasi behar izan dira, bai euren herrialdeko mugen barruan, bai beste herrialde batean. Lekualdatuak guztira 65,6 milioi dira, horietatik 22,5 milioi errefuxiatuak eta 40,3 milioi barne lekualdatuak eta 2,8 milioi asilo eske daudenak[1].

Errefuxiatu esparruak mundu osoan zehar daude, argazkiko mapan ikusi daitekeen bezala, baina ez daude soilik gugandik urrun edo gatazka dauden herrialdetan. Batzuk gugandik nahiko gertu daude, hala nola Frantzian eta Grezian. Argazkitan ikusten den bezala, kanpamentu edo errefuxiatu esparru batzuk ikaragarri handiak dira eta hiriak bezala funtzionatzen dute.

- Calais, Frantzia. Ikusi.
- Zaatari, Jordania. Ikusi.
- Dadaab, Kenya. Ikusi.
- Mogadiscio, Somalia. Ikusi.
- Quios, Grezia. Ikusi.

1 ACNUR: "Tendencias globales sobre refugiados y otras personas de interés del ACNUR" webgunea http://www.acnur.org/recursos/estadisticas/ (Azken kontsulta 2018ko urtarrilaren 17an)

1. LEKUALDAKETA FORZATUA MUNDUAN
(1- 2 ARGAZKIAK)

Bestetik, honakoa izan behar dugu gogoan:

"Errefuxiatuen egoera ez da istripu bat. ***Errefuxiatu bakoitzaren atzean arrazoi bat dago: gobernu bat, armada bat, euren interesen mesederako egoera hori bultzatzen duten enpresak daude.*** *(…) Errefuxiatuekiko laguntza ez da laguntza zehatz bat. Gizarte baten aldaketarekiko konpromisoa da. Gizarte bat kontziente dena ezin dela ongizate sozietate bat sortu, beste herrialde batzuetan ondoeza sortuz".*

Aurreko parrafoan irakurtzen duguna Mateo Agirreren testigantza da, Errefuxiatuen aldeko Jesuiten Zerbitzuaren zuzendaria izan zena 1994 eta 2008 bitartean. Testigantza osoa entzun ahal izateko, honako bideoa ikustera gonbidatzen zaitugu:

- **Bideo**a: Munstroa: Errefuxiatuen munduari begirada bat, bertatik bertara (Iturria: ALBOAN) Ikusi.

- **Infografia**: "2016: Desplazamiento forzado alcanza nuevo reto" (gazteleraz) (Iturria: ACNUR) Ikusi.

2. GATAZKA MINERALAK
(3-7 ARGAZKIAK)

Begiratu argazkiak eta saiatu zaitez deskribapen bat egiten. Zer ikusten duzu? Nolakoa da lekua? Ze ezaugarri ditu? Zer egiten ari dira argazkian ikusten ditugun pertsonak?
Ba al dakizue meatz horien eta gure artean lotura zuzen bat dagoela? Gure mugikorrak. Esnea behi batetik datorrela badakigu, baina nondik dator mugikor bat? Zein materialez osatuta dago? Nondik dator material hori?

Rubayako meatza eta meatzarien aurrean zaude. Bertan koltana dago, lur azpitik lortzen den mineral bat. Hau, mineral beltz eta opakoa da, kolunbita eta tantalioz osatua dagoena, proportzio desberdinetan. Koltana oso mineral urria da ingurumenean, eta interes gutxi sortzetik gure eguneroko tasunean ezinbestekoa izatera pasa da, gailu teknologikoetarako beharrezko osagai baita. Kongoko Errepublika Demokratikoa, batez ere herrialdearen ekialdea, munduko meatzaritza-gune garrantzitsuenetariko bat da. Han omen dago koltanaren munduko erreserben % 80a; mineral hori gabe, ezinezkoa izango litzateke teknologia berrien iraultza, bereziki mugikorraren teknologia. Litekeena da zuetako askok momentu honetan zuen poltsiko ala motxiletan Kongoko zati bat eramatea.







2. GATAZKA MINERALAK
(3-7 ARGAZKIAK)

Koltanaz gain, aipagarriak dira, batez ere, funtsezko zereginak betetzen dituzten beste hiru mineral: urrea, wolframioa eta eztainua (**3T+G**-ak esaten zaie, ingelesezko siglekin). Mineral horiek urriak eta garestiak dira, eta "gatazka-iturri diren mineralak" edo, are gordinago, "odolezko mineralak" deitzen zaie, gatazka, gehiegikeria eta giza eskubideen urraketarekin lotura zuzena duten mineralak direlako.





Tantalioa kondentsadore elektronikoak egiteko erabiltzen da gehien bat. Aluminiokoaren aldean, abantaila nagusia dute tantaliozkoek: karga handiagoa meta dezakete, askoz txikiagoak izan arren. Horregatik dira hain garrantzitsuak tamaina txikiko gailuen fabrikazioan (mugikorrak, ordenagailu eramangarriak, tabletak…). **Eztainua**, berriz, beste metal batzuekin aleazioak egiteko erabiltzen da, haiek korrosiotik babesteko. Latorria egiteko prozesuan, adibidez, altzairua estaltzeko erabiltzen da. Soldadura bigunerako erabiltzen da (tamaina txikiko piezak elkarrekin lotzeko) gailu mugikorretan, ordenagailuetan, autoetan eta, oro har, zirkuitu elektroniko inprimatuetan eta transistoreetan. **Wolframio edo tungstenoa**, zulaketak egiteko eta ebaketa-tresnetarako erabiltzen da gehienbat, gogortasun eta dentsitate handiko minerala baita. Mineral estrategikoa da: batetik, urria delako; eta bestetik, aplikazio ugari dituelako. Honako hauek egiteko erabiltzen da gehienbat: goritasun-lanparak, erresistentzia elektrikoak, altzairu aleazioak, ebaketa-tresnetarako aleazioak, automobiletarako bujiak eta boligrafoak. Ezin da ahaztu arma-industrian ere erabiltzen dela. Laburbilduz, wolframioak ahalbidetzen du mugikorrak bibratzea, eztainua zirkuitoak soldatzeko balio

du, eta tantalioak elektrizitatea metatzen du. Azkenik, urreak kableatuak estaltzen ditu.

"Kongon koltana ustiatzen den moduak giza duintasuna bortxatzea inplikatzen du", Caddy Adzuba, KRDko emakumeen eskubideen aldeko aktibistaren esanetan. Ikusi testigantza osoa honako bideoan:

- **Bideoa:** "Caddy Adzuba, emakumearen eskubideen aldeko aktibistaren testigantza" (Iturria: ALBOAN) Ikusi.

- **Infografia:** "Gatazka mineralak nire mugikorrean?" (Iturria: ALBOAN) Ikusi.

3. MEATEGIETAKO LAN BALDINTZAK
(8-12 ARGAZKIAK)

Ze ezaugarri dituzte argazkian agertzen diren pertsonek (adina, janzkera, sexua eta abar). Zer egiten ari dira? Nola imajinatzen duzue Europako meatzetan lan egiten duen pertsona baten itxura: bere lanerako arropa, erabili behar dituen tresnak, ezaugarriak etab. Argazkian ikusten dituzuen eta imajinatzen duzuenaren arteko desberdintasunik al dago? (alderatu, nahi izanez gero, azpian azaltzen zaizun argazkiarekin)

Kongoko Rubayako meatzariak lur azpian 50 metroko sakonerako galerietan egoten dira argi egokirik gabe. Oxigenoa ere ez da ondo iristen, horrek lana asko zailtzen du, oxigenorik gabe edozein mugimenduk esfortzu handiagoa eskatzen duelako.



Kongon mineralen erauzketara dedikatzen diren pertsona gehienak modu artisauan egiten dute (edo eskuz), lan baldintza oso zailetan. Segurtasun eta laneko tresna egokirik gabe, lanordu zehatzik gabe, soldata kaskarrekin eta adingabeen eskulanarekin kasu askotan. Lan baldintzak esklabutzaren oso antzekoak dira, ondorio larriekin, bai pertsonen osasunerako, baita ingurugiroarentzakoere. Honek guztiak hildako asko sortzen ditu, baita ondorio larriak osasunerako: itsutzea, arnas arazoak, lan-istripuak, besteak beste. Askotan ume txiki eta adingabeek ere egiten dute lan meategietan. Minerala zuzenean erauzten duten pertsonez gain, meategi inguruan lan egiten



3. MEATEGIETAKO LAN BALDINTZAK
(8-12 ARGAZKIAK)

duten beste pertsona asko daude, hala nola zamaketariak eta garbitzaileak (gehienak emakumeak direnak) edo minerala erauzten duten pertsonei zerbitzuak ematen dietenak.



Egoera honi aurre egiteko badira hainbat ekimen[1] . Aintzira Handietako eskualdeko Nazioarteko Konferentziaren ziurtagiri-sistemaren bitartez, bisitak egiten dituzte urtero meategietara, hiru koloreen bidez (berdea, horia edo gorria) horiek kalifikatzeko; koloreak esleitzen dira talde armatuen kontrolpean egotearen eta haurren esplotazioa garatzearen arabera.



Errealitate hau gertuagotik ikusi ahal izateko, bideotxo hauek ikustera gonbidatzen dizuegu:



1 Europako Legedia eta Dodd Frank legediaren inguruko berri eta artikulo batzuk dituzue hemen:

- ALBOAN: "Gatazka-mineralen legeari buruzko behin betiko akordioa" https://www.tecnologialibredeconflicto.org/eu/gatazka-mineralen-legeari-buruzko-behin-betiko-akordioa/
- "Nueva legislación sobre minerales en conflicto, ¿una oportunidad perdida para la Unión Europea?", Justice et Paix Belgiar GKE-k eta 50 erakundeetatik gora sinatutako prensa oharra(Gazteleraz) https://www.tecnologialibredeconflicto.org/wp- content/uploads/2017/03/CP-ConflictMinerals_JyP.pdf
- El País: "Trump y los minerales en conflicto" (Gazteleraz) https://elpais.com/elpais/2017/03/10/planeta_futuro/1489161724_873110.html (Consultado 12 de enero de 2018).

3. MEATEGIETAKO LAN BALDINTZAK
(8-12 ARGAZKIAK)

- **Bideoa:** “Iván Benítezek Rubayako meategietan egindako bideoa” (Iturria ALBOAN) Ikusi.

4. EMAKUMEEN LANA MEATZETAN
(13 ARGAZKIA)

Kasu honetan ere, ze ezaugarri dituzte argazkian agertzen diren pertsonek (adina, jazkera, sexua etb.). Zer egiten ari dira? Ezberdintasunik ikusten al duzu aurreko argazkiekiko?



"Koltanaren Boomarekin" familia nekazari askok landan lan egiteari utzi diote artisau meatzaritzak erakarrita. Horrek ondorio esanguratsuak izan ditu komunitate horietako emakumeen bizitzan. Lehenik, artisau meatzaritzan harrobietan emakumeen lana debekatu egiten dute kasu askotan, bai aurreiritzi matxistengatik, baita araudien interpretazio interesatuengatik. Lan handiagoa egiten dute, ordea, minerala garbitzeako, prozesatzeko eta garraiatzeko prozesuetan; harriak birrintzen dituzte, gertuko erreketan garbitzen dituzte atal baliotsuak lohitasunetik bereizteko, zakuratu egiten dituzte, eta zakuak ondoko herrietara garraiatzen dituzte. Mineral garbitokietan substantzia kimikoak erabiltzeak ingurumena kutsatzeaz gain, kalte larriak eragiten ditu osasunean. Bestalde, garraio lanak arriskutsuak ere badira.

Bigarrenik, dauden baliabide urriekin eskoletan mutilei lehentasuna ematen zaie eta errefuxiatu esparruan bizi diren neska askok ezkontza goiztiarrak onartzera bultzatuta ikusten dute euren burua, edo prostituituak izaten dira. Horretaz gain, emakumeen ahotsa ez da kontutan hartu meatzaritza ziurtagirien prozesuan, eta hori habian jarri zenetik emakumeak garapen integraleko plan bat eskatzen ari dira, emakumeen interesak eta beharrak ordezkatzeko eremua izango duena.

4. EMAKUMEEN LANA MEATZETAN
(13 ARGAZKIA)

- **Bideoa:** “Mujeres desplazadas” (zatia) (Iturria: ALBOAN) Ikusi.
Bideoa osorik eskuratzeko: Ikusi

-en proiektu bat

ALBOAN
Jesuitek bultzatutako Fundazioa

Lortzeagatik

TECNOLOGÍA LIBRE DE CONFLICTO
www.tecnologialibredeconflicto.org

Laguntzailea:

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

5. NORENA DA NATURA?
(14-17 ARGAZKIAK)

Nor ote da gizon armatu hori? Zergatik dago hor? Zein izango da bere lana? Kongoko polizia bat da, meatzetik ateratako koltan zakuen kargamentua zaintzen ari dena. Zergatik izango da polizia horren presentzia beharrezkoa?
Nork eskuratzen ditu meategietako materialak? Nork kontrolatu eta bereganatzen ditu bertatik ateratako etekinak? Nork jasaten ditu material horien eskuraketa eta prozesamenduak eragiten dituen ondorioak?
Zein etekin jasoko dute langileek egiten duten lanagatik?
Eta baliabide naturalen eskuraketaz ari garela, geure buruei galdetu beharreko galdera beharrezkoa: norena da natura?

Kongoko Gatazka Bigarren Mundu Gudatik egon den gatazkarik hilkorrena da. Bost milioi lagun baino gehiago hil dira 1998tik; 2013an, milioi bat lagun lekualdatu dira; eta, urtean, ehun mila emakume baino gehiago bortxatzen dituzte. Gudaren jatorria ez da koltana, baina kapitalismo globala egoeraz baliatu da eta, koltanaren negozioak herriari aberastasuna ekarri beharrean, meatzak kontrolatzen dituzten talde armatuak finantziatzeko erabili da askotan, biolentziaren zikloa elikatuz.





Sexu indarkeria arma gisa erabilia izan da, herrialde bateko emakumeak bortxatzean komunitate hori indargabetzen baita, emakumeek bermatzen duten kohesio soziala apurtzearekin batera. Umeen esplotazioa ere

5. NORENA DA NATURA?
(14-17 ARGAZKIAK)

da nagusi, adingabe asko lan fortzatua egitera behartzen dute meategietan, eta neska asko prostituitzen dituzte. Bestalde, ez da ahaztu behar meategietan lan egiten duten asko gatazkaren ondorioz lekualdatutako pertsonak direla, eta askotan meategiak dituzte diru iturri bakarra.



ALBOANek **baliabide naturalen gobernantza edo kudeaketa arduratsua** defendatzen du: komunitateek berek eta lurraldeetan bizi diren pertsonek erabaki behar dute zer garapen eredua nahi duten euren lurraldeetan, leku bakoitzean komunitate horien estrategien arabera. KEDen, adibidez, meatzaritzaren bidetik garapen eta ongizatea bilatzen duten elkarte eta komunitateekin indarrak batuz.

Hau guztia eta gero, begiratu berriro 17. Argazkia. Saiatu zaitez pertsona honen egun bat imaginatzea. Noiz esnatuko dela uste duzu? Non egingo du lo? Zein adin du? Familiarik izango al du?

- **Bideoa:** "Las Minas del Rey Leopoldo" (gazteleraz) (zatia) (Iturria: Cristianisme i Justícia) Ikusi.
Bideoa osorik ikusteko: Ikusi.

-en proiektu bat Lortzeagatik Laguntzailea:
ALBOAN
Jesuitek bultzatutako Fundazioa
TECNOLOGÍA LIBRE DE CONFLICTO
www.tecnologialibredeconflicto.org
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

6. ZABOR TOXIKOA
(18 ARGAZKIAK)

Argazkian ikusten ari gara lehengaia eta azken produktua, gutako askok dugun mugikor ohiko bat. Zuetako zenbatek duzue mugikor bat? Mugikorrik gabe hilabe oso bat egon ahal zaitezkete? Zenbat mugikor izan dituzue lehendik? Zer egiten duzue mugikor zahar edota hondatuekin? Bizitza amaitzen denean, non bukatuko du? Zer gertatzen da mugikorreko 3T+G mineralekin?



Ordenagailu zaharrak, mugikorrak, etxetresna elektrikoak, MP erreproduzigailuak, tabletak, USB memoriak, inprimagailuak etab. Batzuk hautsi egiten dira, beste batzuk zaharkituta geldditzen dira teknologiaren aurrerapena eta zaharkitze programatua dela eta, edo, besterik gabe, gehiago gustatzen zaizkigun ezaugarriak dituen modelo bat ateratzen da. Alegia, mugikorrak zabor elektronikoaren parte bat dira. Zabor elektronikoa deritzo balio-bizitzaren amaierara iristen diren, eta, beraz, baztertzen diren, gailu elektriko edo elektronikoen multzoari.

Arrazoi askok eragiten dute halako zabor elektroniko izugarria, baina, zalantzarik gabe, bi arrazoi nagusi aipa ditzakegu: kontsumo neurrigabea eta zaharkitzapen programatua, hau da, gailuak asko ez irauteko moduan diseinatzea. Mugikorren erabilera arduratsu batek hauen bizi iraupena luzatzea lagundu dezake, KEDko mineralen erauzketan eragina gutxituz.

Arazoaren dimentsioaz ideia bat egiteko, Europan, bataz beste, biztanle bakoitzak urtean 14kg hondakin elektroniko sortzen ditu gutxi gorabehera. Basileako Konbentzioak debekatzen duen arren, hondakin hauetako askok Afrikako edota Asiako herrialde batzuetara bidaltzen dituzte, bigarren-eskuko merkaturako izango balira bezala, baina hondakin teknologikoko

6. ZABOR TOXIKOA
(18 ARGAZKIAK)

zabortegi erraldoietan amaitzen dute. Zabortegi hauek sortutako giza kostuak eta ingurumen-kostuak izugarriak dira; izan ere, gailu horiek oso substantzia toxikoak izaten dituzte, bai osasunarentzat bai ekosistementzat ere, hala nola merkurioa, kadmioa, kromoa, edo ozono-geruza kaltetzen duten klorofluorokarburoak. Zabortegi ezagunetako bat Agbogblosie auzokoa da, Accran, Ghanako hiriburuan.

- **Bideoa:** "Zaharkitzapen programatua" (Iturria: Zukgu prozesua. Bideo honetan agertzen diren irudi eta edukiak "Comprar, tirar, comprar" dokumentalekoak dira)
Ikusi.

- **Infografia:** "Non nahiko zenuke zure mugikorrak amaitzea?" (Iturria: ALBOAN) Ikusi.

-en proiektu bat
ALBOAN
Jesuitek bultzatutako Fundazioa

Lortzeagatik
TECNOLOGÍA LIBRE DE CONFLICTO
www.tecnologialibredeconflicto.org

Laguntzailea:
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

7. BIOLENTZIAREN ZIKLOA HAUTSI
(13-21 ARGAZKIA)

Begiratu 19. argazkia: Gazteak kartzeleko patioan daude. Zein adinekoak direla uste duzue? Zenbat denbora egongo direla uste duzue?
Bigiratu orain 21. argazkia. Zer ikusten duzue? 19 eta 20 argazkiak alderatu. Zer etortzen zaizue burura?





Kongoko Errepublika Demokratikoko haurrek ezin dute haurtzaro baketsu zein lasai batez gozatu. Gatazka okertzen den heinean, gazte gehiago dira erreklutatuak, eta biolentzia sexuala bikoizten da. Bazterketa sozialak, hezkuntza uzteak eta aurrera egiteko aukera gutxi izateak, biztanleak delituak burutzera bultzatzen ditu, baita gazteak ere. Delitu hauek, arin edo larriak izan, autoritateek espetxeratu egiten dituzte, askotan arrazoi arbitrario-engatik.

Kongoko Errepublika Demokratikoko espetxeak Afrikako okerrenak direla dio NBEk: espetxeratuen gainpopulazioa (Ipar Kivuko espetxea 150 presoentzako dago diseinatua, halere, 850 preso inguru daudela estimatzen da), elikadura eta sendagai falta, eta giza duintasuna bermatzen duten oinarrizko eskubideen bortxaketak gertatzen dira. Gainera, zelda berdinetan ohiko espetxeratuak eta preso militarrak egoten dira, baita emakumeak ere (zeinak biolentzia sexual eta psikologikoaren biktima diren, nahi ez diren haurdunaldiak sortuz), haur eta helduak[1].

1 Europa Press: "Las prisiones de la RDC son las peores de África, según la ONU" (gaztelera) http://www.europapress.es/internacional/noticia-rdcongo-prisiones-rdc-son-peores-africa-onu-20090729130453.html (Azken kontsulta 2018ko urtarrilaren 17an)

7. BIOLENTZIAREN ZIKLOA HAUTSI
(13-21 ARGAZKIA)

Kontestu honetan aukerak sortzea beharrezkoa da. Biolentziaren zikloa hautsi beharra dago, eta horretarako ezinbestekoa da haur eta gazteek bizitza ezberdin bat egiteko aukerak izatea.



Bideoa

- **Bideoa:** "Niños del Congo reivindican sus derechos a través de la música" (Gazteleraz) (Fuente: UNICEF) Ikusi.

-en proiektu bat

ALBOAN
Jesuitek bultzatutako Fundazioa

Lortzeagatik

TECNOLOGÍA LIBRE DE CONFLICTO
www.tecnologialibredeconflicto.org

Laguntzailea:

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

8. INFORMAZIOA ETA GATAZKA AHAZTUAK
(22 ARGAZKIA)

Argazkian kartel informatiboen aztarnak ikusten ditugu, horien aurrean pertsona heldu bat egoera kaskarrean egonik. Zergatik ez dakigu gatazka honen inguruan informaziorako sarbide erraza eta ugaria badugu, inoiz baino informatuagoak baldin bagaude?

Informazio ezaren beste aldean, gehiegizko informazioa topatzen dugu, biak txanpon beraren bi aldeak izanik: desinformazioa. Gai bati buruz gehiegizko informazioa ematea beste alderdi batzuk baztertzea da, zeinak askotan garrantzitsuagoak diren, polemikoak edo argiagoak. Kasu askotan ez du esan nahi azken hauek ez direla aipatzen, baizik eta oso espazio gutxi eskaintzen zaiela besteekin alderatuz eta oharkabean pasatzen zaizkiola publikoari. Aldi berean, gai baten inguruan oso informatuak gaudela iruditzen zaigu, baina errealitatea ondo ulertzeko gakoak falta zaizkigula ez gara konturatzen.

Baina beste osagai bat gehitu behar diogu hau guztiari: zer gertatzen zaigu honetaz jakitun bagara eta hala ere ez badiogu jaramonik egiten? Ignorantzia? Indiferentzia?

- **Infografía:** *""Entzungor jarraituko al duzu?" (Iturria: ALBOAN)* *http://www.educacion.alboan.org/system/card_eus/2590/original/TLC_poster_02_eu.pdf?1446657912*

8. INFORMAZIOA ETA GATAZKA AHAZTUAK
(22 ARGAZKIA)

Ahaztutako beste gatazka batzuk	
Somalia	Gaur egun, biztanleen %31 laguntza humanitarioa behar du, 325.000 haur desnutrizio egoeran daude, eta milioi bat somaliar baino gehiagok atzerrira joan behar izan dute, adibidez, Kenian dagoen Dabaab errefuxiatu esparrura. Herrialdean bertan dauden lekualdatuak ere ez ditugu ahaztu behar, gainera, 2006 urteaz geroztik, Al-Shabaab talde terroristaren ekintzen ondorioz, zifrek gora egin dute.
Eritrea	Eritrea Etiopiatik independentzia 1993an lortu zuen arren, mugaren ondoriozko gatazkak 100.000 hildako eta 1.000.000 errefuxiatu eragin zituen. Gainera, Eritrean 9 etnia baino gehiago egon arren, identitate nazional bat gailendu zuen gobernuak, euren arteko gatazkak sortuz. Giza eskubideen bortxaketa kasuak amaigabeak dira.
Yemen	1990eko maiatzean batu ziren Yemengo bi errepublikak eta ordutik liskarrak egon dira lehen zeuden bi errepubliken artean. Gaur egungo liskarrak hamarkadak atzera zegoen liskar berdinean oinarritzen da: klanak eta sektak, eta oraingo honetan Saudi Arabia eta Irango gobernuak direla tarteko batez ere talde armatuen finantziazioan.
Iturria: norberaren lanketa “Medicos Sin Fronteras” eta Nazio Batuen webguneetan oinarrituz	

-en proiektu bat
ALBOAN
Jesuitek bultzatutako Fundazioa
Lortzeagatik
TECNOLOGÍA LIBRE DE CONFLICTO
www.tecnologialibredeconflicto.org
Laguntzailea:
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

9. MOLIBA MAKAZI EDO NOLA GAINDITU ZAILTASUNAK ELKARREKIN ARRAUN EGINDA, GARAIAK ZAILAK IZAN ARREN

(23 ARGAZKIA)

Begiratu 23. Argazkia: zer ikusten duzu bertan? Non daude ume horiek? Eta nola daude? Zer egiten ari direla uste duzu? Argazkiko testuak honakoa dio: "pilota bat, familia bat eta gatazka ia ahaztuta"… posible dela uste duzu?



Ikusiz joan garen bortizkeria ziklo honen gainetik herrialde bat dago eta, batez ere, beren lurraldearen garapena eraikitzeko gaitasuna duten herritarrak daude; gai dira begirada jaso eta beste Kongo bat posible dela amets egiteko, eta egunero hori lortzeko lan egiteko.

Kongoko Errepublika Demokratikoa hedaduraz Afrikako bigarren herrialderik handiena da, Argelia eta gero, eta paisaia-mota asko ditu, hegoaldeko sabanatik hasi eta mendien eskualderaino, Afrikako laku handietatik igaroz. Kongon hainbat parke nazional daude, eta horietako 5 Gizateriaren Ondare izendatu ditu Unescok. Tamalez gaur egun, gerra dela eta, Unescok arriskuko gune gisa sailkatu ditu. Nolanahi ere, aniztasun hori ez da inguru-men-kontuetara mugatzen; kultura aniztasuna nabarmena baita: 250 talde etniko inguru daude eta 242 hizkuntz hitz egiten direla uste da.

Gure egiten ditugu Kongoko Uele ibaiko arrantzaleen abestiaren hitzak: "bidea zaila izan arren, korrontea handia izan arren, elkarrekin egiten badugu arraun, gure helburua lortuko dugu".

- **Bideoak:**

o "Moliba Makasi Abestia" (Iturria: Didier Jeunesse - Des comptines et des chansons) Ikusi.

o "Happy we are from Goma" (Iturria: Kelvin Batumike) Ikusi.

9. MOLIBA MAKAZI EDO NOLA GAINDITU ZAILTASUNAK ELKARREKIN ARRAUN EGINDA, GARAIAK ZAILAK IZAN ARREN

(23 ARGAZKIA)

- **Infografia:** “Moliba Makazi” (Iturria: ALBOAN) Ikusi.

- “I am Congo Video Series”(ingelesez) (Iturria: Enough Project) Ikusi.

-en proiektu bat Lortzeagatik Laguntzailea:

ALBOAN
Jesuitek bultzatutako Fundazioa

TECNOLOGÍA LIBRE DE CONFLICTO
www.tecnologialibredeconflicto.org

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

10. 1.ERREFUXIATUEN ALDEKO JESUITEN ZERBITZUA ETA HEZKUNTZAREN GARRANTZIA (24 - 26 ARGAZKIAK)

Begiratu 24.argazkia. Hiru persona daude: nortzuk dira? Bizkarrez dagoen pertsonak bere arropetan irudi bat darama. Ikusi al duzue irudi hori inoiz? Izen baten parte bat ikusten da arropetan "Jesuit Refuge…" ezagutzen al duzue erakundea? Bere izena zein den dakizue? Ezaguna egiten al zaizue? 25. argazkia begiratu. Zein leku da hori? Eta zer egiten ari da bertan argazkiko mutila? Eta 26. argazkiko emakumeak? Hiru belaunaldi horiek, zer egiten ari dira?

ALBOAN Errefuxiatuen Zerbitzu Jesuitarekin (JRS) lankidetzan dago Goman, Ipar Kivuko hiriburuan. Bertan zazpi kanpamentutan banatuta dauden 156.000 pertsonek arreta jasotzen dute.



Egonleku hauetan, Errefuxiatuen Zerbitzu Jesuitarekin hainbat zerbitzu eskaintzen ditugu: elikagai laguntza eta larrialdiko materialak, hala nola, mantak eta txabolak egiteko lonak; laguntza psikosoziala biolentzia eta lekualdatzeak eragindako traumak dituzten pertsonentzat; eta alfabetizazio kanpamentuak, ofizioen irakaspenak eta lan egiteko tresnak etorkizun batean lanpostu bat topatzeko aukera emanez eta dirusarrera egonkor bat lortzeko asmoz.



Hezkuntza oinarrizko eskubide bat da, eta ezinbestekoa da etorkizun itxaropentsu bat izateko. Hezkuntzak duintasunarekin zerikusia du. Gatazkaren eraginak murriztu egiten ditu hezkuntzarako sarbidea izateko aukerak. Izan ere,

10. 1ERREFUXIATUEN ALDEKO JESUITEN ZERBITZUA ETA HEZKUNTZAREN GARRANTZIA (24 - 26 ARGAZKIAK)



hezkuntzak normaltasuna eta ordena eskaintzen dizkie etxetik ihes egin duten, senitartekoak hiltzen ikusi dituzten eta indarkeriaren etengabeko mehatxua bizi duten haurrei. Hezkuntzak ikasgaiak irakasten ditu baina, horrez gain, gakoa da Kongoko Errepublika Demokratikoan bestelako gizarte bat eraikitzeko.

"Herri desplazatu batean izugarri laguntzen du haurrak eskolara joatea ikasketa urte hori galdu ez dezaten; baina batez ere, bizitza normalizatzen laguntzen dietelako. Desplazamendu batek duen trauma, asko murrizten da ohitu egin diren jarduera bat baldin badute"

Ines Oleaga – JRS, Servicio Jesuita a Refugiados

- **Bideoa:** "¿Dónde están las escuelas? Educación de niñas, niños y jóvenes en RDC" (zatia) (gazteleraz) (Iturria: ALBOAN) Ikusi.
Bideo osoa ikusteko: Ikusi.

-en proiektu bat
ALBOAN
Jesuitek bultzatutako Fundazioa

Lortzeagatik
TECNOLOGÍA LIBRE DE CONFLICTO
www.tecnologialibredeconflicto.org

Laguntzailea:
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

11. SYNERGIE DES FEMMES CONTRE LES VIOLENCES SEXUELLES ETA BULENGO ETXEA

(27-28 ARGAZKIAK)

Zer daukate amankomunean 27 eta 28 argazkiko emakumeek? Denek daramate zerbait bizkar gainean: batak egurra, beste batek umetxoa… eta hirugarrenak? Zer darama bizkarrean? Zertarako? Horrela dio 27. Argazkiko testuak "komunitate oso baten etorkizuna emakume bakar baten lanaren baitan dago".

"Imajinatu Masisiko desplazatu-esparruan bizi den emakume bat zarela. Imajinatu gizartearen garapenerako gakoa zarela. Imajinatu KEDko etorkizuna zure eskuetan dagoela" (ALBOANen Mujeres desplazadas bideoa).

KED kaosetik eta txirotasunetik atera nahi duen edozein proiektuk emakumea bere ardatz zentralean jarri behar du. Bizi garen gizarte-sisteman jaiotzean dugun sexuaren eraikuntza du oinarri. Gizarte-eraikuntza horrek eta sistema horrek desberdintasunak eragiten dituzte gizon eta emakumeen artean, eta gizartean ditugun aukerak baldintzatzen eta mugatzen dituzte (maila pertsonalean, laboralean, politikoan, ekonomikoan, zein sozialean). Sistema horrek, botere-harreman desberdinak ezartzen ditu eta emakumezkoen posizioa eta kondizioa ahulagoa izan dadin eragiten du. Sexu-indarkeria gerrako arma gisa baliatu izan da gatazketan, eta helburu militarrak eta politikoak izan ditu.

KED-eko meatzaritza Afrika erdialdeko emakumeek bizi duten egoera larriarekin oso lotuta dago. Sexu indarkeria terrorismo mota bat bilakatu da; izan ere, herritarrak beren herrietatik botatzeko eta meategien ustiaketak dauden lurren gaineko kontrola eskuratzeko erabiltzen da, izua eragiteko gerrako arma gisa.

Bi lotura zuzen dago sexu-indarkeriaren eta legez kontrako meatzaritzaren artean: batetik, talde armatuen eskutik emakumeen bortxaketak, komunitateak beren lurretatik kanporatzeko eta horrela baliabide naturalak ustiatu ahal izateko; bestetik, meategietan edo meategiei lotutako zerbitzuetan lan

11. SYNERGIE DES FEMMES CONTRE LES VIOLENCES SEXUELLES ETA BULENGO ETXEA

(27-28 ARGAZKIAK)

egiten duten emakumeen erasoak daude, euren gain boterea erakutsi nahian. Lan-esplotazioa jasaten dute (askotan ez zaie ordaintzen) edota sexu-esplotazioaren biktima dira.

Nazioarteko komunitatea gero eta kezkatuago dago gai horren inguruan eta, ondorioz, zenbait ebazpen eman ditu Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluak[1] . Ebazpen horietan emakumezkoen, bakearen eta segurtasunaren gaiak lantzen dira. Bakerik edo segurtasunik gabeko aldietan emakumezkoek jasaten duten eragin bereizgarrian jartzen da arreta; bakea eraikitzeko prozesuetan duten zeregina onartzen da, eta aitortzen da beharrezkoa dela emakumezkoek ere parte hartzea erabakiak hartzeko uneetan, aurrez aurre dituzten egoerak aldatzeko.

Synergie des femmes contre les violences sexuelles erakundearen eginkizuna KED-an emakumeek jasan duten sexu-indarkeriaren aurka egitea da; 2000 urteaz geroztik gaude ALBOANen elkarlanean. Laguntza medikua, laguntza psikosoziala eta birgizarteratze ekonomikoa eskaintzen ditu erakundeak. Horretaz gain, komunitatearekin sentsibilizazio lana egiten du erakundeak alde batetik sexu-indarkeria saihesteko, eta bestetik biktimak babestu beharra dagoela azpimarratzeko.

---

1 Nazio Batuen Erakundeko ebazpenak: 1820 Ebazpena – emakumeen papera bakearen eraikuntzan eta biolentzia sexualaren aurrean dagoen inpunitatea gerrarako taktika gisa. http://www.ipu.org/splz-e/cuenca10/UN_1820.pdf

1888 Ebazpena – bakea mantentzeko egiten diren operaziotako mandatuetan xedapen zehatzak egiteko emakumeak eta haurrak babesteko gatazka armatuetan gertatzen den biolentzia sexualen aurrean. http://www.acnur.org/t3/fileadmin/Documentos/BDL/2011/8237.pdf?view=1

1889 Ebazpena – gatazka armatuetan emakumeen papera. http://www.acnur.org/t3/fileadmin/Documentos/BDL/2011/8236.pdf?view=1

1960 Ebazpena –emakumeen aurkako errepresioa gerrarako arma gisa, gizartearen aurkako krimen gisa zehazten du. http://www.acnur.org/t3/fileadmin/Documentos/BDL/2011/8324.pdf?view=1

2106 Ebazpena – sozietate zibilaren eta Estatu-kideen arreta eskatzen du. http://www.acnur.org/t3/fileadmin/Documentos/BDL/2014/9577.pdf

(Goiko linkak 2018ko urtarrilak 12an izan ziren ikuskatuak)

11. SYNERGIE DES FEMMES CONTRE LES VIOLENCES SEXUELLES ETA BULENGO ETXEA

(27-28 ARGAZKIAK)

Bulengo Etxea Synergy erakundearen ekimen bat da, eta emakumeek emakumeentzako kudeatzen duten gune bat. Honen helburua arreta mediku, sozial eta ekonomikoa ematea da. Bulengo Etxeak laguntza psikosoziala eskaintzen du, terapia eta familia bitartekaritza Goman biolentzia sexuala jasan duten biktimentzako. Bulengo Etxeak 25 emakume artatzen ditu. Etxe honetan honako premisa hauetan egiten dute lan: sendatzea, erreparazio eta ahalduntzea. Emakume bakoitzaren egonaldiaren iraupena desberdina da bakoitzak pairatzen duen egoeraren larritasunaren arabera, fisikoki sendatzeko denboraren arabera, eta bestelako zauriez sendatzeko denboraren arabera; izan ere, emakume hauei euren familiak ez diete onartzen eta haien komunitateetatik kanporatuak izaten dira eraso sexualen biktima izan direla jakiten denean.

- **Bideoak:**
  - "Diario de un viaje al Congo. Casa Bulengo" (gaztelaniaz) (Iturria: ALBOAN) Ikusi.
  - "Amparo Sanchezek egindako Mama Africa abestia" (gaztelaniaz) (Iturria: ALBOAN) Ikusi.

- **Infografia:** "Sexu indarkeria gatazketan" (Iturria: ALBOAN) Ikusi.

-en proiektu bat
ALBOAN
Jesuitek bultzatutako Fundazioa

Lortzeagatik
TECNOLOGÍA LIBRE DE CONFLICTO
www.tecnologialibredeconflicto.org

Laguntzailea:
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

12. ALDAKETARAKO PROPOSAMENAK
(29 ARGAZKIA)

Argazkian Gomako biztanle bat mugikor baten erabiltzailea erakusten duen anuntzio baten aurretik pasatzen ikusten dugu. Non kokatzen zarete zuek? Argazkian azaltzen diren pertsonetako zeinekin identifikatzen zarete gehiago? Kontsumo katearen zein zatitan zaudete? Zeintzuk dira "haiek" eta "gure" arteko loturak?



Gutariko bakoitzak kontsumitzaile gisa duen boterea erabil dezake gatazkarik gabeko teknologia lortzearen alde. Baina gure buruari galdetu diezaiokegu: zer paper jokatzen dugu kontsumo-gizarte honetan? Nola bila ditzakegu gure ohiturak, jardunbideak, erosketak… mundu globalizatuaren errealitatean eta, zehazki teknologian eragiteko?

Produktu elektrikoen kontsumoaren kalteak ahalik eta txikienak izan daitezen lortzeko, etxetresna elektriko bat hondatzen zaigunean egin beharreko lehen gauza gure udalerritik gertuen dauden puntu berdeei buruzko informazioa eskuratzea da (Internet bidez edo udaletxera deituz). Han adieraziko digute nora eraman dezakegun gure zabor elektronikoa.

Gatazkarik Gabeko Teknologia kanpainatik ere Mugikorrak Kongoren alde izeneko ekimenarekin berrerabileren eta birziklapenaren aldeko apustua egin dugu. Gailuen bilketatik lortutako diruarekin Jesuiten Errefuxiatuentzako Zerbitzuak KED-ren ekialdean dituen ekintza humanitarioko programei laguntzen diegu. Baina haratago joan nahi dugu eta arazoaren jatorriei erantzuna eman nahi diegu. Hori dela eta, ikusgai jarri nahi ditugu teknologia mugikorraren munduan existitzen diren alternatibak eta, bide batez, esparru honetara ekarri nahi dugu kontsumo arduratsuaren aldeko mugimenduen lema historikoa: "kontsumitu gutxiago, kontsumitu hobeto".

12. ALDAKETARAKO PROPOSAMENAK
(29 ARGAZKIA)

Zer egin dezakegu guk?

Mugikorra hondatzen bazaizu:

- Kontsultatu enpresaren **berme-zerbitzua.**
- Bildu mugikorren konponketa-enpresei buruzko informazioa. Sarean interesgarriak diren aukerak topatuko dituzu.
- Saiatu **zu zeu mugikorra konpontzen.**
- Ez bada posible, **birziklatzeko** aukera duzu.

Beste mugikor bat erostea erabaki baduzu:

- **Berrerabili** mugikor zaharrago bat edo erosi **bigarren eskuko** bat (ebay, loquuo, wallapop-en begiratuz, adibidez).
- Balioetsi **irizpide etikoak eta ingurunearekin lotutakoak**, ez soilik prezioa.

Badago ere **FAIRPHONE** proposamena, estandar etikotik eta giza eskubideak errespetatuz egindako telefono bat dena. KEDn erosten eta inbertitzen jarraitu dute "Conflict-Free Tin Initiative CFTI)" eta "Solutions for Hope Project" ekimenen bitartez etekinak familiei eta ez talde armatuei laguntzeko erabiltzen dira; diseinu irekia du iraunkortasun handiagoa izateko zaharkitzapen programatuaren arauak ez jarraituz, eta E-Waste edo zabor elektronikoaren kudeaketaren gaiari erreparatuz, Ghanako erakundeekin lankidetzan ari dira.

Arlo sozialean ere badira aukerak:

- Biziki sustatu zure inguruan gatazkarik gabeko teknologiaren erabilera
- Informatu eta inguruko pertsonak eta taldeak trebatu
- Gatazkarik Gabeko Teknologia kanpaina ezagutarazi eta haren hedatzaile bihurtu zaitez
- "Kongorako mugikorrak" bildu zure inguruan. Mugikor horiekin

12. ALDAKETARAKO PROPOSAMENAK
(23 ARGAZKIA)

hango gatazkaren ondorioak jasaten dituztenen aldeko zenbait proiektu finantziatuko ditugu.

- **Bideoa:** "Zure mugikorrak ezkutatzen duena" (zatia) (Iturria: ALBOAN) Ikusi.

- **Infografiak:**
  - "Aldaketarako proposamenak"(Iturria: ALBOAN) Ikusi.
  - "Mugikorra aldatzeko gida: noiz da mugikorrez aldatzeko momentua?" (Iturria: ALBOAN) Ikusi.
  - Produktu elektronikoak arduraz kontsumitzeko gida (Iturria: ALBOAN) Ikusi.
  - FAIRPHONE webgunea: https://www.fairphone.com/en/

Denok lagundu dezakegu Kongoko Errepublika Demokratikoko indarkeria amaitzen.
Egin bat gurekin!
Informazio gehiago
www.gatazkarikgabekoteknologia.org
web orrialdeanean.

-en proiektu bat
ALBOAN
Jesuitek bultzatutako Fundazioa

Lortzeagatik
TECNOLOGÍA LIBRE DE CONFLICTO
www.tecnologialibredeconflicto.org

Laguntzailea:
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN